

XEDAPENA, 2023KO IRAILAREN 15EKOA, OSATEK, S.A.-KO ZUZENDARI GERENTEARENA, MEDIKU ERRADIOLOGO KATEGORIAN ALDI BATERAKO KONTRATAZIOKO ZERRENDETAN IZENA EMATEKO ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ONARTZEN DUENA.

Osatek, S.A.-ko zuzendari kudeatzailearen 2016ko uztailaren 13ko Xedapenaren bidez, erradiodiagnostikoko mediku espezialisten lan-poltsa egiteko deialdiaren oinarri orokorrak onartu ziren.

Osatek, S.A.-ko zuzendari kudeatzailearen 2023ko apirilaren 19ko Xedapenaren bidez, deialdia baimendu zen, eta aldi baterako kontratazio-zerrendetan mediku erradiologo kategorian izena emateko epea ireki zen.

Osatek, S.A.-ko zuzendari kudeatzailearen 2023ko apirilaren 26ko Xedapenaren bidez, mediku erradiologo kategorian aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Azaldutako guztiagatik, eta Sozietatea Eratzeko Estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa: Onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea, baztertze-arrazoia adierazita, hala badagokio. Zerrenda hori xedapen honen eranskinetan dago.

Bigarrena: Xedapen hau Osatek, S.A.-ren webgunean argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena: Xedapen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osatek, S.A.-ren Administrazio Kontseiluari, idatziz, posta-helbide honetan: Bilboko Urkixo zumarkalea 36, 5. Solairua, 48011 posta-kodea. Hilabeteko epean, webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bilbao, 2023ko irailaren 15a.

Zuzendari gerentea

Josu Xabier Llano Hernaiz